



Euskadiko Garraio Agintaritza

gaiak eta ukitutako erakunde eta entitateak



**Euskadiko
Garraio Agintaritza**

Autoridad
del Transporte de Euskadi



Argitaraldia: 1.a, 2017ko urtarila

Ale-kopurua: 60 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia /
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco,
Donostia, 1 -01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

Lege-gordailua: VI 4-2017

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Euskadiko Garraio Agintaritzak 2004ko abenduaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, abenduaren 15eko 5/2003 Legearen 5.1.5 artikuluan aipatutako KONTSULTA-EGITEKOA zertan datzan zehazten duen agiria onartu zen. Onartutako agiri horretan Euskadiko Garraio Agintaritzari kontsulta egin behar dioten ERAKUNDE ETA ENTITATEen zerrenda bat jaso zen, gaika antolatura, eta Agintaritzaren nahitaezko txostena zehatz-mehatz zein izapidetan eskatu behar den ere adierazten zen.

Ondoren datorren taulan gaiz gai, agirian bildutakoak jaso dira:

- Lehenengo bi zutabetan akordioaren lehenengo zatiaren berri ematen da: “EUSKADIKO GARRAIO AGINTARITZAREN TXOSTENA BEHAR DUTEN GAIK ETA UKITUTAKO ERAKUNDE ETA ENTITATEAK, ABENDUAREN 15EKO 5/2003 LEGEAREN 5.1.5 ARTIKULUAN EZARRITAKO KONTSULTA-EGINKIZUNAREN ONDORIO”.
- Azken lerrokadan Eusko Garraio Agintaritzari kontsulta noiz egin behar zaion zehazten da, onartutako akordioaren bigarren zatiari jarraikiz (“EUSKADIKO GARRAIO AGINTARITZAREN NAHITAEZKO TXOSTENA BEHAR DUTEN IZAPIDEAK”). Oro har, kasuan kasuko plana egin, berrikusi edo aldatzeko prozeduretan nahitaezko txostenentzat aurreikusitako izapidearen barruan egin beharko dira kontsultak.



A) Errepide-planak, orokorrak nahiz lurralde arlokoak

Gaiak

Honako agiri hauek egin eta aldatzeko prozedurak:

- Errepideen Plan Orokorra.
- Foru aldundien errepideen lurralde arloko planak.

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritzan garraio arloan eskumena duen saila.
- Araba, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak.

Izapidea

- Errepideen Plan Orokorra. Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txostena Errepideen Plan Orokorren aurrerapenaren fasean.
- Foru aldundien errepideen lurralde arloko planak:
 - Bizkaia – Plangintza-proiektua onartu aurretik.
 - Gipuzkoa - Jendaurreko erakustaldiaren eta entzunaldiaren ondoren.
 - Araba – Prozeduran ez da horrelako txostenik aurreikusten, beraz ulertu beharko dugu Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostena jendaurreko erakustaldia amaitu ondoren eskatuko dutela.

Oro har, foru aldundiek beren eskumenen barruan egiten dituzten lurralde arloko planek, behin betiko onartu aurretik, Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txostena izan beharko dute.

B) Trenbide, portu, aireportu, heliportu, zentro logistiko eta zentro intermodalen lurralde arloko planak

Gaiak

Honako agiri hauek egin eta aldatzeko prozedurak:

- EAeko trenbide-sarearen LAP.
- EAeko portuen LAP.
- EAeko aireportuen LAP.
- EAeko heliportuen LAP.
- EAeko sare intermodal eta logistikoaren LAP.

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritzan garraio arloan eskumena duen saila.
- Sustapen Ministerioa, EAEn eskumeneko gaiak ukitzen dituzten jarduketetan.

Izapidea

- Eusko Jaurlaritzaren planetan – Euskadiko Garraio Agintaritzaren, txostenak Eusko Jaurlaritzak plana dekretu bidez behin betiko onartu aurretik.
- Foru aldundien planetan: foru aldundiek beren eskumenen barruan egiten dituzten lurralde arloko planek, behin betiko onartu aurretik, Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txostena izan beharko dute.

C) Garraioaren lurralde agintaritzen estatutuak

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritza.
- Foru aldundiak.
- Udalak.

Izapidea

Lurralde agintaritzak sortu aurretik nahitaezkoa.

D) Lurraldearen antolamendurako tresnak

Gaiak

Honako agiri hauek egin eta aldatzeko prozedurak:

- Lurralde antolamenduko jarraibideak.
- Lurralde-plan partzialak.
- Lurraldearen arloko planak.
- Hiri-antolamendurako plan nagusiak.
- Planeamenduko arau subsidiarioak.

Izapidea

- Lurralde antolamenduko jarraibideak. Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostenak honako fase hauetan dira nahitaezkoak:
 - Gidalerroen aurrerapena.
 - Hasierako onespina baino lehen, aurrelaburpenaren testu berria.
 - Behin-behineko onarpenaren aurretik.
- Lurralde-plan partzialak. Txostenak honako fase hauetan dira nahitaezkoak:
 - Planaren hasierako onarpenaren aurreko akordio-proposamena.
 - Behin-behineko onarpenaren akordioa.
- Lurraldearen arloko planak. Prozedura: Sektoreko legerian ezarritakoa, eta halakorik ez bada, Lurralde-plan partzialetan ezarritakoak:
 - Eusko Jaurlaritzaren planetan – Euskadiko Garraio Agintaritzaren txostena nahitaezkoa da, Eusko Jaurlaritzak plana dekretu bidez behin betiko onartu aurretik.
 - Foru aldundien planetan: foru aldundiek beren eskumenen barruan egiten dituzten lurralde arloko planek, behin betiko onartu aurretik, Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txostena izan beharko dute.
- Hiri-antolamendurako plan nagusiak. Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txostena, behin betiko onartu baino lehen.
- Planeamenduko arau subsidiarioak.. Euskadiko Garraio Agintaritzaren nahitaezko txostena, behin betiko onartu baino lehen.

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritza.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.
- Sustapen Ministerioa, EAEn eskumeneko gaiak ukitzen dituzten jarduketetan.

E) Zerbitzuak ustiatzeko administrazioaren emakidak

Gaiak

Honako emakida hauek eman, aldatu eta amaitzeko:

- Lurralde historiko bat baino gehiago ukitzen dutenak.
- Beste garraibide batzuek ematen dituzten zerbitzuekin bat egiten dutenak.

Emakidak:

- Erabilpen orokorreko zerbitzu erregular urte osokoak.
- Garraio publikoko trenbideak ustiatzekoak.

Izapidea

Eskumena duen organoak emakida eman, aldatu edo amaitu aurretik.

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritzan garraio arloan eskumena duen saila.
- Foru aldundiak.
- Sustapen Ministerioa, EAEn eskumeneko gaiak ukitzen dituzten zerbitzuetan.

F) EAEren eta beste administrazio batzuen arteko lankidetzarako proposamen eta akordioak

Gaiak

- RENFErekiko edo trenbideko beste garraio-operadore batzuekiko adostasun-proposamenak.
- Europar Batasuneko eskualdeekiko lankidetzarako akordioak.

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritza.

Izapidea

- RENFErekiko edo trenbideko beste garraio-operadore batzuekiko adostasun-proposamenak. Sinatu aurretik.
- Europar Batasuneko eskualdeekiko lankidetzarako akordioak. Sinatu aurretik.

G) Indarrean dagoen legeria eta Lurreko Garraioen Estatuko Kontseiluaren eginkizunak, EAEko Administrazioari dagozkion eskumenetan

Gaiak

Lurreko Garraioen Estatuko Kontseilua. Eginkizunen artean, honako hauen inguruko txostenak egitea dagokio:

- Garraio-planak egiteko prozedura
- Kontzesioen aurreproiektua
- Leku berean bat egiten duten trafikoak eta leku berean bat egiten duten trafikoak ezartzeko salbuespenak
- Zerbitzuak ustiatzea, interespeko kudeaketaren bidez edo sozietate mistoen bidez, edo kudeaketa zuzenaren bidez
- Emakida-tituluan zehaztutako trafikoak aldatzea
- Ibilgailu bera bi emakida edo gehiagotako trafikoetarako erabiltzeko baimena ematea
- Linea bateko emakidapeko zerbitzu erregular guztiak zonako emakidan, legez dagokiona baino lehen, sartzea
- Erabilpen bereziko zerbitzu erregularretarako lehen baimena ematea
- Turismo-garraioak: zerbitzu osagarrien prezioa zerbitzu erregularraren tarifa gutxienez % 30 garestiagoa izango den baldintzaren salbuespena
- Garraio-geltokien sailkapena.

Ukitutako erakunde eta entitateak

- Eusko Jaurlaritza.
- Foru aldundiak.
- Sustapen Ministerioa, EAEren eskumeneko gaiak ukitzen dituzten zerbitzuetan.

Izapidea

Lurreko Garraioen Estatuko Kontseiluaren eginkizunak, EAEko Administrazioari dagozkion eskumenetan. Ebazpenak onartu aurretik.

Erabilitako izandapen eta laburdurak

Agintaritzak: Euskadiko Garraio Agintaritzak

LAP: Lurraldearen Arloko Plana

LL.HH.: Lurralde historikoak

EB: Europar Batasuna

